**ERREPORTAJEA** GABONAK MAROKON · **GEHIGARRIA** TXIKIBARREN
**KIROLA** ABRAHAM CHEBII KENIARRA 3. ALDIZ GARAILE MUGERZA KROSEAN

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko urtarrilaren 16a/XII. urtea/472. zkia



# Maroko, Gabonak pasatzeko beste modu bat

Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

**Makina Erremintaren Institutua**

Azkue Auzoa, 1
20. 870 ELGOIBAR
Gipuzkoa

Tel.: 943 74 82 64
Faxa: 943 74 41 53

ingenieria@imh.es
www.imh.es

cesi aquitaine poitou-charentes

IQNet · AENOR ER · Euskadi

2004 / 2005 IKASTURTEA

**TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA**





**BILERA INFORMATIBOA:**

**Otsailaren 21an, arratsaldeko 18:30ean** prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera-baldintzak azaltzeko:

- Makina Erremintaren Institutuko ( IMHko) instalazioen bisita.
- Bilera informatiboa

- **Enpresarekin elkarlanean** garatutako lanbide-proiektua.
- **Lan-kontratua** prestakuntzaren lehen egunetik.
- **Emaitza erakargarriak:** gehiengoa lanean, % 40 zuzendaritzako ardurekin.

**MATRIKULA EPEA ZABALIK**

**ZEZEN-BIDE**
AUTO ESKOLA

Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** *teoria ikasteko gela berria* !



**ORDUTEGIA**
10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

asteko notizia



## Asteroko zaharrak

Baietz esan nien Barrenekoei “asteko notizia” atalean bi hilean behin iritzi artikulu bat idazteko prest al nengoen galdetu zidatenean. Baina orain beldur naiz. Beldur naiz ez ote naizen hitz emandakoa betetzeko gai izango. Izan ere, asteko berriak baino, asteroko zaharrek (erabileraren erabileraz gastatutako, zahartutako astero-asteroko berriek, hain zuzen) kezkatu ohi naute ni gehiago.

Asteroko zaharrei, zahar gehienei bezala, ez diegu kasu handiegirik egiten. Egunero pasatzen dira gure aurretik, betiko kolorez jantzita, betiko diskurtsoa ahoan. Eta gu ohitu egiten gara ezinbestean. Zer erremedio. Gainera, ez dakit konturatu zareten, baina asteroko zahar guztiek, guzti-guztiek, titular berbera dute beti: BELDURRA. Dela terrorista euskaldun batek (edo euskaldun batek, beste gabe. Zein da, bada, diferentzia?) hilko gaituen beldurra; dela Al Qaedako terrorista kamikaze batek (edo irakiar batek, edo palestinar batek, edo israeldar batek. Ez al dira, bada, guztiak berdinak?) lurralde osoa suntsituko digun beldurra; dela marokoar batek, edo beltz batek, edo horietako batek lana lapurtuko digun beldurra...

Dardarka gaude. Dardarka gaude munduko burges guztiak. Dardar egiten ez duten bakarrak gosez hiltzen ari direnak dira. Haiek ezin dute dardar eginez energia alferrik gastatu, gertu duten heriotza gehiago gerturatuko litzaieke-eta bestela. Baina horiek ez dira ez asteroko ez asteko notizia. Ez dira eta kitto. Ba, jakin ezazu, ni ere, zu bezala, burges naizen aldetik, beldur naizela, asteroko zaharren oso beldur.

Dena den, ez apuratu, hurrengoan asteko notizia xelebreren bat komentatzera mugatuko naiz eta. Erosoagoa izango da niretzat, eta ziurrenez, zuretzat ere bai.

**Uxue Alberdi**



## Ilbeltza

Eguberri Jaiak igaro ostean, badirudi iragan urtean egindako gauzak bertan behera gelditzen direla. Urte berria asmo berriz josita hasten dugu. Zerotik abiatzen garela dirudi. Aktibitateak aldatu nahi ditugu. Gehienek helburu berriak xedatu. Gabonetako gehiegikeriak jasan ondoren kontu korrontera begiratzeak ere ikara eragiten du. Urtarril maldatsu honek nolabaiteko lozorroan sartzen gaitu, urte amaierako hiperaktibitatearen ondorio jakina, alegia.

Nik neuk ez dut oso gogoko urte sasoi hau. Zerbaiten arrankea dirudi. Goibela da, iluna. Jarduera berriekin hasteak dakarren alfergura izaten dut. Ustez, beherapenetan ibiltzeaz gain ez dugu bestelako denborapasarik. Hilabete beltza da, jatorrizko izenak dioen bezalaxe.

Hau ez da horrela, ordea, elgoibartar askorentzat. Hilaren 6an, Errege Egunean, Udal Bandaren kontzertu zoragarri batetaz gozatu ahal izan genuen. Joan den igandean, musika gogoko izan ez arren atletismoa maite dutenentzat, aparteko lasterketa andana prestatu zuen Mintxeta A.T.k. Ego-Tokik antolakuntza lanak utzi ostean norbaitek Mugerza Krosaren etorkizunaz zalantzarik izan badu lasai asko lo egin dezake datozen urteetan, benetan pozgarria baita aipatu atletismo taldeak aurrekoengandik jaso duen ondarea zein ondo egokitu duen egiaztatzea.

Ego-Tokik urteetan zehar egindako lan eskergaz baliatuz, ederki moldatu dituzte ekarritako ideia berritzaileak egungo antolatzaileek.

Eta musika maitaleentzat bigarren deialdi bat datorren larunbaterako; San Antón egunean Ertzaintzaren Bandaren kontzertua, eta kirolzaleentzat pilota partidak arratsaldez. En fin; badago nora joan, non izan ilbeltz honetan. Eta aipatutako ezer laket ez duenarentzat beherapenak, dendaz denda ere ondotxo joaten baita denbora. Gero etorriko da otsaila beste kantu batzurekin.

**Gotzon Arrieta**

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Kexak ....................5
mOtz MotZ ....................10
gehigarria ....................13
kiRolAk ....................20
aGenda ....................24

2004-I-16

# Urruzunoren begi ezkutua

## Haizea txikiari



Hau ikara, lehenengoz zuri hitz batzuk idaztea...

Belarrira ipuin bat kontatzen arituko banintz bezala nago, urduri, gehiegi gerturatzeak esnatuko zaituen beldur. Hiru hilabete egin dituzu mundu honetan eta, “zer moduz zaude?” galdetu nahi dizut. Gauza asko dauzkazu kontatzeko? Horixe iruditzen zait. Ohartu zara zure ahizpa nagusiaz? Begira egiozu sarriago. Hark handia den ustea dauka, zure aldamenean “ni naiz zaharrena" harro-harro esanez aritzen da. Begira egiozu sarriago. Zure begirada batek beste ezerk ez bezala alaitzen baitu haren aurpegia. Nik estimu handitan daukat, besteak beste pertsona gutxi ezagutu dudalako haren modukorik. Ikusiko duzu, ohartuko zara.

Eta zuk, zurekoi horrek, gure arreta osoa daramazu zurekin. Behin hitz egin nuen “izaki txikien indarraz”, eta zuk Hobbit txikia dirudizu. Horren txiki eta horren indartsu. Denok gauzkazu airean, “nire antza du, ez nirea...”. Eta nik harro esan dezaket, nirea ere bazarela, badaukat eta zure antzik, ezpainetan bederen.

Garairik onenean etorri zara gurera. Ordurik onenean. Lore bat oparitu nahi dizut, eta Benito Lertxundiren Nere Herriko kanta.

Bai badakit, badakit hitzok irakurri nahi dituzula, baina oraingoz nik kontatuta ase beharko duzu. Muxu handi bat Haizea. Txiki bat hobeto, handi batek zure aurpegia estaliko du eta...

**Ainhoa Lendinez**

## Otsoa beti otso

Gezurra dirudi, baina nola diren gauzak. Beste urte batez ertzaintzaren bandak kontzertua eskainiko du San Anton egunez. Ardi larruz jantzita etortzen zaigu egun hortan otsoa herrira. Nor engainatzea espero dute?

Gazteok ondo ezagutzen dugu ertzaintzaren benetako izaera. Ez ditugu ahazten gazte askok pairatzen dituzten jazarpen, atxiloketa eta torturak, ezta beraien esku gertaturiko “hilketak”. Badaude gazteak Audientzia Nazionaletik pasaraziak izan direnak kartelak ipintze hutsagatik. Hor dauzkagu baita ere egunotan epaitegitik pasa diren gazteak (ertzaintzak identifikatuak) EHUn Egunkariaren aldeko itxialdi bat dela medio.

Elgoibarren ere pairatu dugu ertzaintzaren izaera errepresiboa. Hor dauzkagu gazte asanbladako kideek jasandako jipoia (plaza txikiko gaztetxearen desalojoan) eta orain dela ez hainbeste Iñaki Jaioren ongi etorrian eta omenaldian herritarrok jaso genuen tratua. Mehatxuak, kolpeak eta atxiloketak izan ziren besteak beste, eta herritarrak lurrean zehar ibili gintuzten. Egun hartan alkatesak esan omen zuen guzti hura ez zegoela bere esku, azkar ahazten ditugu gauzak ordea, eta orain ertzaintzaren banda ekartzeari egoki iritziko zion. Lotsa gutxi behar da gero.

P.D.: Agian eusko gudariak ere eskainiko digute Arzallusek aterkiaz zuzenduta. Egunen batean Guardia Zibilaren bandaren kontzertu bat ikustera ere helduko gera, hori bai, zintzoak bagara bakarrik.

**Elgoibarko gazte asanblada**
**I. B. A.**
**15400716-P**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzek ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

**LAGUNTZAILEA** Elgoibarko Udala **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegii **ZUZENDARIA** Asier Orbea **GEHIGARRIEN ARDURADUNA** Maite Uriarte **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **GERENTZIA** Jon Peli Uriguen **KOLABORATZAILEAK** Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. **AZALEKO ESAERA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburutik **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.175 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa
zuri esker
DANOBAT
MAQUINAS HERRAMIENTA
GOITI
GRUPO DANOBAT
ESTARTA
GRUPO DANOBAT

## KEXAK

◆ Herritar batek esan digunez, **Melitongo errotondan ez dago argirik**: “Farola mordoa jarri dute, baina ez dituzte pizten. Gauetan oso ilun egoten da zonalde hau, eta euria egiten duenean batez ere, ez da ezer ikusten. Oso arriskutsua da, eta mesedez, argiak pizteko eskatuko nuke”.

▶



◆ Santa Ana kaleko bizilagun batek esan digunez, **korreoseko buzoia oso leku txarrean dago Sigmako zubi berrian**: “Korreoseko buzoia oso gaizki utzi dute Sigmako zubian. Denda baten eskaparatearen aurrean dago, zemento bloke handi baten gainean, eta eskutitzak botatzeko lekuraino iristea ez da erraza. Lehengo lekuan hobeto zegoen buzoia”.

▼



◆ Urasandiko bizilagun batzuk azaldu digutenez, **Madalako errotondatik Urasandira igotzeko bidea oso txarra da**: “Errotondatik Urasandira igotzeko lehenengo errebuelta oso txarra da, baina bigarrena are eta txarragoa. Stop egin behar da, eta hortik gorako norabidea hartzea ez da batere erraza, eta gehienetan kontrako karrilera pasatzen zara. Aldapa horretan gainera, kotxeak aparkatuta egoten direnez, oso zaila da bi kotxe gurutzatzea. Zerbait egin beharra dago, Urasandi gero eta okerrago baitago”.

◆ Urasandiko auzokide batzuk azaldu digutenez, **Urasanditik Pilar Ikastetxera joateko bidea zuloz beteta dago**: “Urasanditik Pilar Ikastetxera doan bidea zuloz beteta dago, eta euria egiten duenean sekulako putzuak sortzen dira. Ume asko pasatzen da bertatik eskolara joateko, eta hankak bustita iristen dira. Denbora mordoa darama bide horrek egoera honetan, eta bada zerbait egiteko ordua”.

## TXALOAK

◆ **Elgoibar Ikastolak eskerrak eman nahi dizue, Gabon Zahar Feria egunean txosnara hurbildu zineten guztiori** eta bereziki zuen laguntza eskaini duzuenoi.

▼






# Gabonak Marokon,

*Gabonak beste modu batera, etxetik eta familiakoengandik urrun, pasatzea erabaki zuten 9 elgoibartarrek aurten, Marokon hain zuzen ere. Neguko hotzei alde egin nahian abenduaren 25ean irten ziren "Alauita"rren erreinurantz eta urtarrilaren 6an itzuli ziren etxera. Euskal Herriko 36 lagun joan ziren, tartean 9 elgoibartar: Jon Peli Uriguen, Aitzol Arriola, Aitor Olasolo, Hector Garrido, Iñaki Buruntza, Igor Arriola, Asier Zengotita, Gaizka Argarate eta Imanol Larrañaga. Bidai agentzia baten bitartez joan ziren, baina Abadiñoko Joserra Basaguren izan zen dena antolatu zuena. Gizon honek 20 urte inguru daramatza Marokora bidaiak antolatzen Gabonetan eta dena oso ondo lotuta ei dauka.*

*Lehen lau egunak mendian pasa zituzten, Atlas mendilerroan. Bi ibilaldi edo "trekking" egin eta Toubkal mendia igo zituzten. Marokoko mendirik altuena da Toubkal (4.160 m.). Handik Marrakechera joan ziren eta bertan pasa zuten urteko azken eguna. Urte berriarekin batera desertura joan ziren eta 4 egun eman zituzten desertuko joan-etorrian. Kostaldea bisitatzeko astia ere izan zuten eta azken bi egunetan Marrakechera itzuli*

Marokora egin behar genuen bidaia "kontrasteen bidaia" izango zela esan zigun gurekin etorriko zen giak. Eta arrazoia zeukan. Mendiko elur eta izotzak, desertuko dunekin eta hondarrarekin kontrastean; Atlaseko herrixketako bakea eta lasaitasuna, eta Marrakecheko eromena eta jendetza, parez pare; emakumeen begirada lotsatia eta gizonezkoen atrebentzia, nahasian; ... Hamahiru egunetan sentsazio asko eta diferenteak jaso ditugu. Oroimenean eta erretratu kameretan gordeta ekarri ditugu batzuk. Ikusi nahi?



## UMEAK ETA EMAKUMEAK

Akaso umeen irudia izan da bidaia honetan gutako askori gehien eragin diguna. Ez dute ezer. Kalean aurkituko dituzu, zikin, arropa zaharrekin jantzita. Baina denek dute bisitariontzat irribarre bat. "Monsieur, ¿fani?", "¿bonbon?" edo "¿stylo?" dira beraien ahotik gehien entzuten diren berbak. Eskean datoz, eta goxoki edo boligrafo baten truke duten aurpegirik onena eskainiko dizute. Zuretzat. Eta hori betirako geratzen da.

Emakumea, berriz, hutsaren hurrengoa da Marokon. Ezkutuan bizi da, aurpegia eta gorputza tapatuta. Lotsati, beldurti. Gizonezkoak terraza batean tea hartu eta berbetan dauden bitartean, emakumeak etxean edo lanean egongo dira. Gazte direla zahartzen dira.



## PARAJE IKUSGARRIAK

Leku zoragarriak ikusi ditugu Marokon. Eta bi adibide jartzeagatik, Todrako haitzarteak eta Ouzoud-eko ur-jauziak ikus ditzakezue. Todrako haitzartea eskalatzaileen paradisua da. Makina bat euskaldun pasatzen omen da bertatik haitzean gora egiteko intentzioarekin. Ouzoud-eko ur-jauziak, berriz, paradisu txiki bat da. Naturaren edertasuna eta lasaitasuna elkarri eskua emanda bizi diren leku paregabea.





*Testua:*
***Imanol Larrañaga***
*Argazkiak:* ***I. Burunza eta J.P. Uriguen***



## ATLASEKO HERRIXKAK ETA MARRAKECH

Atlaseko herrixka bereber txiki batean pasa genuen lehen gaua. Ilun zela iritsi ginen bertara, herria lotan zegoela. Goizean, herriko umeen eta antxumeen zaratek esnatu gintuzten. Begiak zabal-zabal eginda erreparatu genion herriari. Mendietako maldetan eraikitako herrixkak dira, bertako lur eta harriekin jasoak. Kalerik gabeko herrixkak. Ur korronterik gabekoak asko, argi indarrik gabe. Hantxe bizi dira bereberrak.

Eta lauzpabost egun Atlas inguruan eman ondoren, Marrakechera joan ginen. Zer zen hura! Jendea atzera eta aurrera, batetik bestera; autoak, bizikletak, motor zaharrak... Denak nahasian, zarata batean, bozina hotsa, inolako trafiko araurik gabe. Librean. Nekagarria gutako batzuen ustetan. Eta Marrakecheko plaza? Ikusgarria da benetan. Kaleko hamaika "artista" plazaren erdian, jendea beraiei begira, jateko dozenaka postu, eskaleak, turistak... eta kea! Marrakecheko plazan egunero egosten den bizimoduak botatzen duen kea.





## DESERTUA ETA ZERUA

Desertua ere ezagutu dugu. Hondarra, dunak, eguzkia... baina berorik pasa gabe. Gabonetan Marokon ez dago berorik pasatzeko beldurrik. Hotza bai, gauean eta goizean hotz egiten du. Gaua duna baten gailurrean pasa genuen. Lo-zakuan sartu eta gora begiratuta genuen ikusmirak ez du parekorik. Marokoko zerua berezia da, izarrek distira espeziala dute. Eskuetan hartzeko inbidia ematen du. Gauaren hotzak inguratuta hartu gintuen loak, izarrei begira. Hurrengo goizean, berriz, egunsentiak esan zigun egun on. Edarra izan zen eguzkiak ku-ku nola egin zigun ikustea.







## TOUBKAL (4.167 M)

Goizeko 05:00etan jaiki ginen Toubkalera abantatzeko. Bezperan egin genuen refugiora arteko bidea. Bidearen erdia geratzen zitzaigun Marokoko mendirik altuena hankapean hartzeko. Hotz egiten zuen. Geneuzkan arropa guztiak jantzi, granpoiak jarri eta poliki-poliki abantatu ginen gorantz. Laster azaldu zen eguzkia mendi artetik; berak argituko eta gozatuko zigun Toubkalerako bidea. Elurraren egoerak lagunduta, erraz iritsi ginen Toubkalera. Bista zoragarriak eskaini zizkigun gailurrak. Erretratuak atera, elgoibartarrok bertan izan ginela egiaztatzen zuen plaka jarri eta gustura ekin genion beherako bideari.

## ZOKOA ETA REGATEOA

Azkenerako laga dugu Marrakecheko "zokoa". Ehunka salmenta puntu, denak saltzeko deseatzen. "Hola amigo, solo ver!". Mantak, lanparak, oihalak, musika instrumentuak, te-ontziak, zeramika... Hau bai dela zoramena! Hori bai, erosi nahi denaren prezioa regateo luze baten ondoren adosten da. Ez da lan erraza izaten, astuna ere badirudi hasieran. Baina zokoan ordu batzuk eman ostean, norberak ere gustua hartzen dio erosteko modu xelebre honi.



## Beste mundu bat da

Mundua bakarra omen da, baina Marokora joan ostean mundu bat baino gehiago dagoela sinistuta bueltatzen zara. Hango eta hemengo munduek ez dute behintzat zer ikusirik. Maroko bertan dago, baina oso urrutira joan zaren inpresioarekin geratzen zara. Marokora joatea ehun urte atzera egitea dela diote batzuk. Urrutirako bidean egin daitekeen bidaiarik motzena ei da. Merezi du.



# Xabi Ansola

## "Marokoko euskaldunak direla esaten dute Bereberrek"

*Xabi Ansola elgoibartarrak ederki ezagutzen du Maroko, dagoeneko sei aldiz izana baita, pasa diren Gabonetan azkenengoz. Horren gertu dagoen herrialdeak eskaintzen duen aukera zabalak erakartzen du Xabi eta baita kultur eta paisaia ezberdintasunak ere. Jendeak bizitzeko duen "patxadia" ere gustuko du eta Marokoko Kafetegi baten kanpoaldean eseri eta kaleko mugimendua ikusteko gomendioa luzatu digu. Oraingoz horrelakorik egin ez dezakegunez berak azaldu digu han*

**Marokon pasa dituzu Gabon jaiak, ezta?**
Bai, azken 4 edo 5 urteetako Gabon jaiak bertan pasatzeko ohitura hartu dugu. Opor egunak ditudanez eta 15 egunetarako urrunegi joateak merezi ez duenez, Maroko aukera aparta eta hurbila da. Egun bakar batean ailegatu zintezke autoz eta bertako errepideak oso ondo daude. Abenduaren 20an abiatu ginen hiru lagun gure furgonetan eta urtarrilaren 5era arte egon ginen bertan.

**Zehazki nondik nora ibili zarete?**
Beti egiten dugu buelta antzerako xamarra. Chauenen hasi, Meknesera gero, bertako neska bat elgoibartar batekin ezkonduta baitago eta ezagunak ditugu. Aurtengo berrikuntza Todran egin genituen "trekking"ak izan ziren. Azken egunak Asilah-n pasa genituen. Hasieran dena da berria eta beste era batetara bidaiatzen da. Denborarekin jendea eta tokiak ezagutzen joan ahala, gustuko tokietara jotzen duzu zuzenean.

**Aurrez izana zinen, beraz. Zenbat alditan?**
Lehen aldiz duela 15 edo 16 urte joan nintzen eta orain dela 7 urte berriz itzuli nintzen udan. Azken 4 edo 5 urteetan, berriz, Gabon jaietako oporrak aprobetxatu ditut Marokora joateko. Aste Santuko oporretan ere joan izan naiz. Berez garairik egokiena da, udan bero gehiegi egiten baitu eta neguan aldiz, egunez manga motzean ibil zintezke, baina eguzkia sartzen denean izugarrizko hotza egiten du.

**Zer dauka Marokok horrenbeste aldiz itzultzeko?**
Berezitasun handiena, hain gertu egonik, dagoen aldaketa kulturala da. Kultura zeharo ezberdina da, alde batetik erlijio ezberdina dutelako eta bestalde, Bereberrak eta Arabiarren arteko nahasketa. Ohitura, janaria, jendea mugitzeko modua, etab. erabat desberdinak dira. Beti dago berrikuntzaren bat eta baita ezustekoak ere. Gainera, aukera mordo bat eskaintzen ditu Marokok: kirola egiteko, mendia, kostaldea, turismo kulturala, e.a. behin eta berriz joan zintezke.

**"Marokoren berezitasunik handiena, hain gertu egonik, dagoen aldaketa kulturala da"**

**Non eta nola pasa zenituzten Eguberri eta Urtezahar Eguna?**
Abenduaren 24a leku batetik bestera mugitzeko erabili genuen. Gaueko 21:00ak inguruan iritsi ginen herrira, hotela hartu, afaldu eta ohera. Urtezahar Egunean ere ez genuen aparteko gauzarik egin. Bertara joateko beste arrazoi bat hemen Gabonen inguruan antolatuta dagoen guztia atzean lagatzea ere izaten da. Nahiz eta han ere gero eta gertuago nabari daitezkeen Gabon jaiak, batez ere turista gehien dauden tokietan.

**Turismoak esplotatutako herrialdea al da?**
Oraindik ez gehiegi. Marokok bi aukera eskaintzen ditu; toki oso turistikoak batetik, baina bestetik, oraindik badago aukera Atlasetako mendietan eta desertuan bertako jendea urte luzeetan bizi izan den modua ikusteko aukera. Mendiko herrixka hauetara lehen aldiz joan ginenean ez zegoen argi indarrik, ezta autoz joateko pistarik ere. Hiri handietatik 50 km aldentzea nahikoa da beste mundu bat ezagutzeko. Orain lehen mendiko pistak zeuden lekuetan asfaltoa sartzen hasiak dira.

**Euskaldunok ezagutzen al gaituzte?**
Euskaldun jende dexente joaten da eta beraiek esaten dutenez Espainiako Bereberrak gara edo beraiek dira Marokoko euskaldunak. Marokoko biztanle kopuru handi xamarra Bereberra da, hezkuntza ezberdina dute eta jende asko dago oraindik frantsesik edo arabierarik hitz egiten ez dakiena. Mendiko herri txikietan oso markatuta dute Bereber nortasuna.

2004-I-16

# nola ALDATU diren gauzak!



**1945.** urte inguruko argazki honetan, Lerungo futbol zelai zaharra ageri zaigu. 1930. urteko Trinitate egunean inauguratu zen Elgoibar eta Trintxerpe arteko partiduarekin. Makina bat futbol taldek zapaldu zuten Lerungo futbol zelaia. Eibar eta Soraluze moduko taldeek ez zeukaten futbol zelairik euren herrian, eta Lerunen jokatzen zuten. Honetaz gain, Espainiako futbol talde ezagun ugari pasatu ziren bertatik. Lerungo futbol zelaia lur oso ona edukitzeagatik zen ezaguna. Atletismo alorreko norgehiagokak, lasterketak eta bestelakoak ere izan ziren bertan.

Aurrean ikusten den etxea “Casa Blanca” izenez ezagutzen zen. Paraje honetan eraiki zen lehenengo etxebizitza Manolo Antonek egin zuen. San Pedro fabrika famatuaren urbidea ere ikusten da argazkian; arrain ugari egoten zen bertan. Gaur egun Elgoibarrek Mintxetako kirol gune ederra dauka. 1993an inauguratu zuten Mintxeta, eta urtebete beranduago desagertu zen Lerun.

**2004**ko argazki honetan zeharo aldatuta ageri zaigu ingurune hau. Lerungo futbol zelai zaharra zegoen lekuan, industrigune garrantzitsua dago. Tailer, almazen eta supermerkatu handi bat ere egin dituzte bertan. Jende asko ibiltzen da ingurune honetan lanean, erosketak egiten edota pasiaran. Lehengo paraje eder eta lasaia, mugimendu handiko gunea da gaur egun.

Lehenengo etxebizitza haietatik garatutako, auzo berri bat daukagu gaur egun, San Pedro auzoa, hain zuzen ere. Gero eta handiagoa eta dotoreagoa da San Pedro auzoa. Herrian oso ezaguna eta garrantzitsua izandako San Pedro fabrika zegoen bertan. Herriko eta kanpoko jende ugarik egin zuen lan fabrika honetan. N-634 errepidean ere aldaketa handiak egin dituzte, Melitongo errotonda berria eraikiz. Denbora ez da alferrik pasa, baina elgoibartarrek oraindik gogoan dute Lerungo futbol zelai zaharra. Agur Lerun!

***Juanito Gorostiza***



# Udalak Gazte Lokala martxan jartzeko proiektua atera du lehiaketara

## 2000 m²ko neurria eta 420.000 euro baino gutxiagoko kostua izan beharko

Elgoibarko Udalak egungo Gaztetxea ordezkatuko duen gazte lokala martxan jartzeko proiektua aukeratuko du lehiaketa bidez. 13 urte pasatu dira dagoeneko Madalako Gaztetxe zaharra bota zutenetik, eta azkenik, badirudi Elgoibarko gazteentzako lokalaren etorkizuna ziurtatuta dagoela.



*Printzipioz ekainera arte ez dute Gaztetxea botako.*

**Lokalaren ezaugarriak**

Udala, beraz, Gaztetxe modura erabiliko den lokal baten bila ari da. Lokal hori eskuratzeko lehiaketan ezarritakoaren arabera, eraikinak, gutxi gorabehera, 2.000 metro karratuko azalera izan beharko du, eta 420.000 euro baino gutxiago balio beharko du, hori baita Udalak lokala erosteko jarri duen aurrekontua.

**Gaztetxeari agur**

Bukatzear dago gaur egungo Gaztetxearen ibilbidea, baina badirudi, gazteek lokal berri bat izango dutela euren jarduerak burutu ahal izateko. Hainbat urtetan eskabideak egiten jardun ondoren, herriko gazteak akordio batera heldu ziren aurreko Udal Batzarrarekin. Sasoi hartan izandako elkarrizketetan gaur egungo lokalaren erabilera behin-behinekoa izango zela adostu zuten. Hasiera batean, hiru urterako utzi zieten lokala, izan ere, Gaztetxea kokatzen deneko eraikina bota, eta bertan etxebizitzak egiteko asmoa baitago. Gaztetxekoak notizia berrien zain daude. Printzipioz ekainerako utzi behar dute egungo lokala, baina ez dakite non eskainiko dieten lokal berria. Joan zen astean, Udaletxekoekin bilera egiteko eskakizuna luzatu zuten, baina oraindik ez dute erantzunik jaso.

Maribi Aguirregomezkorta Elgoibarko alkateak, bere legealdiaren hasieran adierazi zuenez, Udalaren asmoa Gaztetxearen inguruko gaia legealdi honetan konpontzea da.

# Pilarreko zubi berria irekitzear dago

## 1914an eraikitako zubi zaharra joan zen ostiralean bota zuten, eta berria aurki irekitzeko asmoa daukate



*Langileek zubi zaharra bota zuteneko unea.*

Deba ibaiko uholdeak ebitatzeko proiektuaren barnean, Pilarreko zubi zaharra bota zuten joan zen ostiralean, hilaren 9an. Hainbeste uholde jasan ostean tente jarraitzen zuen zubiak, baina ezin izan zituen eskabadoraren golpeak gainditu.

Goizeko 11:00ak aldera hasi ziren zubia botatzen. Alboetako bi zutabeak bota zituzten lehenengo, eta erdikoak ondoren. Langileek uste zutena baino ahulagoa zegoen zubia, eta berehala bukatu zuten beraien lana.

Pilarreko zubi zaharra Pedro Muguruza arkitektoaren anai batek diseinatu zuen 1914. urte inguruan. Zubi hau herritik Pilar ikastetxera joaten zirenentzako pasabidea izan da urte askotan zehar, eta orain, pasabide berri bati egin dio lekua.

Zubi berria lehengoaren aldamenean eraiki dute. 36 metroko luzera dauka, eta oinezkoentzako pasabidea egurrezkoa da. Detailerik adierazgarriena gaur egungo arte motara egokitzen den metalezko euskarria da. Hasiera batean, joan zen urrian irekitzeko asmoa zeukaten, baina argiztapen arazo batzuk direla-eta, prozesua atzeratu egin da. Zubi zaharra botata, berria irekitzeko azken detaileak lotzen ari dira, eta egun gutxiren buruan irekiko dute oinezkoentzako pasabide berria. Udaletxetik jakinarazi dutenez, San Anton jaietarako irekitzea da beraien asmoa.

## Ainara Betegi azpeitiarrak hartuko du Gurean Bai Merkataritza proiektuaren ardura



Aurpegi berria izango du aurrerantzean Gurean Bai Merkataritza proiektuak. Nagore Dorronsoro debarraren lekua, Ainara Betegi azpeitiarrak beteko du, eta bera arituko da herriko dendariekin elkarlanean. Dagoeneko herriko dendariei egokitutako hitzarmen espezifikoak sinatuta daude. Guztira 135 merkatarik hartu dute hitzarmena betetzeko konpromisoa, eta Ainara Betegi izango da aurrerantzean, dendari hauei jarraipena egin eta hitzarmena betetzen lagunduko diena. Ilusio handiz hartu du Ainarak bere lan berria, eta Nagorerengandik beharrezko aholkuak jaso ostean, buru belarri ekingo dio bere eginbeharrari. Nagoreri bestalde, zorterik onena opa diogu.

## Gabonetako zozketak

Txankakaua Merkatari Elkarteak1.800 euro erosketa txekeetan zozketatu ditu Gabonetan. Lau sari desberdin banatu dituzte, eta hauek dira zenbaki irabazleak:

1. 62.938: 900 euro.
2. 47.714: 450 euro.
3. 71.550: 300 euro.
4. 21.539: 150 euro.

Erreserba zenbakiak ondorengoak dira:

1. 26.480
2. 04.044
3. 64.691
4. 69.561

C.D Elgoibarrek, bestalde, Gabonetako bi otarre zozketatu zituen. **13.169** eta **16.074** izan dira zenbaki sarituak, eta dagoeneko, irabazleak agertu dira. Lehenengo saria Eibarko Ernesto Egurenek jaso du eta bigarrena Usurbilgo Jesus Tapiarentzat izan da. Zorionak!



Azkue

## Herri Eskolakoek San Sebastian Eguna ospatuko dute hilaren 20an

Donostia eta Azpeitikoen pare, Elgoibarko Herri Eskolakoek ere San Sebastian Eguna ospatuko dute datorren asteartean, hilaren 20an. Arratsaldeko 15:30ean hasita, Haur Hezkuntzako eta LH 1 eta 2. mailako ikasleek danborrada egingo dute ikastetxeko patioan. Ikasle bakoitzak etxetik eramango du danborra, eta eskolan emango diete gainontzeko materiala. LH 5 eta 6. Mailako hiru ikasle izango dira danborradako zuzendariak, eta pare bat egun lehenago entseguak egiten hasiko dira. Guztira lau abesti joko dituzte: Diano, Tatiago, Martxa eta Idiarena.



## Udaleko zergak eta tasak interneten

Udalak zergak eta tasak internet bidez ordaintzeko aukera eskaintzen du bere webgunean. www.elgoibar.org helbidean, “ordainketak on-line” atalaren barnean. Transferentziaren datu guztiak ezkutuan geldituko direla ziurtatzen du Udalak, eta inork ez du aukerarik izango besteen datu pertsonalak ezagutzeko. Programa honetan Bilbao Bizkaia Kutxa, BBVA, Kutxa, Santander Central Hispano, Caja Vital Kutxa, Banco Gipuzcoano eta Euskadiko Kutxak hartuko dute parte.

## Parrokiako jaiotza ezinduentzako egokituko dute hilaren 19tik 23ra

Nagusilan Elkarteak eta Parrokiako Jaiotzaren antolatzaileek, ezinduentzako egokituko dute Parrokiako lokala. Honela, urtarrilaren 19tik 23ra bitartean, arratsaldeko 16:30etik 18:00etara jaiotza ikusteko aukera izango dute. Elgoibarko ezinduei hilaren 20an joatea eskatzen diete antolatzaileek, izan ere, gainontzeko egunetan, Eibar, Ermua, Deba, Zumaia eta Zumarragako ezinduak ere etorriko baitira.

## Gaixo psikikoen senideentzako laguntza ikastaroak

Gaixo psikikoen senideei laguntzeko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Elgoibarko Udala eta Agifes Elkartearen (Gipuzkoako gaixotasun psikikoa duten senideei laguntzeko elkartea) laguntzaz kurtso psiko hezitzaile bat jarriko du martxan. Kurtsoa Elgoibarren bertan emango da, otsaila eta martxoan zehar goizez. Interesatuek ondorengo telefonoetan jaso ahal izango dute informazio gehiago: 943 76 36 95 (9:00etatik 13:00etara, Ainhoa Basurkorengatik galdetu) edo 943 47 43 37 (Idoia Olasagastirengatik galdetu).

### Euskadi da Estatuko organo emaile kopuru altuena duen lurraldea

# PREST AL ZAUDE HIL OSTEAN ZURE ORGANOAK EMATEKO?



## MARI CARMEN IGLESIAS

**46 urte, etxekoandrea**

Bai, askotan pentsatu dut organo emaile egitea, baina oraindik ez dut pausu hori eman. Hil ostean nik ez ditut beharko, eta norbaiti laguntzen badiote, emateko prest nago.

## ANA REMENTERIA

**40 urte, administraria**

Organo emailea naiz. Lagun bati gibela transplantatu zioten eta orain askoz hobeto dago. Arazoa gertutik ezagutu dut, eta organoak ematea beharrezkoa dela pentsatzen dut.





## CONCEPCION CID

**58 urte, etxekoandrea**

Ahal banu emango nituzke, baina hepatitis gaixotasuna jasan dut, eta ezin ditut eman. Zientzia ikerketak egiteko ere emango nituzke, baina medikuek ezinezkoa dela esan didate.

## JOSE LUIS ALVAREZ

**24 urte, mekanikoa**

Bai, beste pertsona bati bizia ematea da, eta hil ostean organoek ez dute ezertarako balio. Oraindik ez naiz organo emailea, baina badaukat egiteko asmoa.





## GARIKOITZ URREIZTI

**30 urte, torneroa**

Bai, organo emailea naiz. Duela urtebete inguru hartu nuen erabakia. Odola ematera joan nintzen, bertan eskaini zidaten organoak emateko aukera eta papelak bete nituen.

## MARITXU CORNEJO

**32 urte, kimikaria**

Bai, ideia horrekin nabil aspalditik, baina oraindik ez dut heriotzan pentsatu nahi, eta ez dut organo emaile izateko pausua eman. Egunen baten ausartuko naiz.



Bikote, familia eta kideekin terapiak

- Harreman arazoak:
- Jarrera arazoak
- Porrot eskolarra
- Antsietatea, depresioa, elikagai arazoak...

OREKA PSIKOLOGIA

Edificio Aurrera Urtzaile kalea, 1
20600 EIBAR

Miriam Mujika Tel. 676 61 70 55
Ainhoa Basurko Tel. 615 70 37 25

CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra

San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

GRUPO RRALMM

txi BARRE

LHko eta DBHko ikasleekin egindako 7. gehigarria

# Maialen Lujanbio

## Bertsolaria

***Bertsolaria eta gainera emakumea. Gaur egun zeharo normala da emakume bertsolariak ikustea, baina zubia zeharkatu zuen aurrenetakoa Maialen Lujanbio izan zen. Hainbeste bertsolari txapelketetan bigarren geratu ondoren, Maialenek Gipuzkoako txapela jaso zuen pasa den hilabetean Irunen jokatutako finalean.***



**Bertsolaria eta emakumea. Erraza al da?**

Orokorrean gainetik begiratuta oso ondo tratatu gaituzte, nahiz eta denentzako nahiko txokantea izan zen. Hasieran betetzen genuen papera nahiko anekdotikoa zen. Kuriositate bezala eramaten gintuzten alde batetik bestera, bertsolari bezala baino gehiago. Baina poliki-poliki aldatzen ari da.

**Txapelketetatik edo plazaz plaza bihurtzen da bertsolari?**

Kasu desberdinak daude. Nahiz eta orain txapelketetan nahiko puntan ibili naizen, ni eta ni bezala Irazu adibidez, ez gara txapelketetatik ateratakoak, baizik eta plazaz plaza ibilita egin dugu gure esperientzia; gero etorri da txapelketan ondo ibiltzea. Egia da, txapelketak direla jende gaztearentzako eskaparate handienetako bat. Plazetan ondo dabilen bertsolaria, ez da zertan txapelketetan ondo ibili behar, eta alderantziz.

**Kanpotik ikusita badirudi zuek bertsolariak koadrila handia baino gehiago klana osatzen duzuela.**

Nik uste dut badela horrela, baina ez pentsa familia itxura egiten propio gabiltzanik. Oso giro ona eta elkar ulertze polita daukagu, batez ere kontuan hartuta bertsolari belaunaldi ezberdinak gabiltzala elkarrekin.

**Nola esplikatzen zaio atzerritar bati bertsolaria zarela?**

Ez da erreza! Inprobisatuz abestu egiten dudala esaten diet, beti ere gaur eguneko gai bati buruz.

**Erdararen soroetan landatzen hasiko al zarete bertsolariak?**

Ez dut uste plazan erdaraz hasiko garenik, euskara da bertso-laritzaren ezaugarri garran-tzitsuena.

**Pasa den hilabetean Elgoibarren aritu zinen bertsotan.**

Bai. Oso saio polita atera zen, antzokia gaztez bete zen

## MOTX-MOTXIAN

**Zure burua definitzeko izenondo egokiena?**
Lasaia
**Bizitzeko leku bat?**
Euskal Herria
**Festarik onenak?**
Usurbilekoak
**Bizitza honetan jakin beharreko lekzioa?**
Aiton-amonei galdetu! Ni gaztea naiz oraindik!
**Txapela zurea zela jakin zenuenean zer pasatu zitzaizun burutik?**
Puf! Bukatu da dena! Pakea!
**Doraemonen denboraren makina bazenu?**
Txirritarekin bertsotan egingo nuke
**Botila erdi hutsa ala erdi beteta?**
Erdi beteta izatea hobe.
**Bertsolariak piskat masokistak bazarete ba!**
Bai, gauza berdina pentsatzen dut askotan
**Zeri diozu beldurra?**
Sufrimenduari
**Txikitako anekdota bat?**
Hitz egiten oinez baino azkarrago ikasi nuela dio amak
**Inoiz egin dizuten oparirik politena?**
Eskuz egiten direnak izaten dira ederrenak
**Hil eta gero?** Gerokoak

**"Hitz egiten oinez baino azkarrago ikasi nuela dio amak"**

# IRAKASLEARI

## MAIDER ARRIZABALAGA

### MUSIKAKO IRAKASLEA



**1 Irakasle ez bazina, zer izan nahi zenuke?**
Zenbakiekin lan egingo nuke edo laborategian.

**2 Irakasle on baten ezaugarriak?**
Buruan daukan hori transmititzen jakitea, umeengana iritsiz, beti ere giro on baten barruan.

**3 Zer erakutsi dizute haurrek?**
Gauza txikiak eskertzen.

**4 Zer borratuko zenuke borragoma magiko batekin?**
Munduan dauden injustiziak.

**5 Irakasle betirako?**
Bizitzak bira asko ematen ditu eta auskalo!

**6 Inteligentzia, lana ala zortea?**
Hiruen konbinazioa eta ausarta izatea.

**7 Historiako pertsonaia bat aukeratzekotan?**
Emakumeen eskubideen alde egin duen edozein.

**8 Bizitza al da irakaslerik onena?**
Bai. Pertsona heldutzen doa bizi duenaren arabera eta piskanaka ikasten goaz.

**9 Txikitako bihurrikeria bat?**
Eskolan geunden 3 lagun komunera joan ginen. Han ahoa urez bete eta klaseko ispilura bota genuen. Hormari begira egon ginen gero.

# NOLAKO ENBORRA... HALAKO

## GALDERAK

1. Zer da zure amak/alabak duen onena?
2. Txikitako gaiztakeria bat?
3. Loteria tokatuko balitzaizu?
4. Nola ikusten duzu zure burua 20 urte barru?
5. Zeri diozu beldurra?
6. Zer zigor jarriko zenioke gaizki portatuz gero?
7. Famatu bat aukeratzekotan?
8. Egin dizuten oparirik onena ?



LOURDES LOPEZ

1 Oso maitakorra da
2 Botila batzuekin jolasten, apurtu eta orain izugarrizko zauria daukat oinean
3 Etxea konpondu eta bidaia bat egingo nuke
4 Nire senarrarekin gustura!
5 Heriotzari eta gaixotasunei
6 Telebista gabe denbora bat
7 Richard Gere
8 Nereak eta bere anaiak oparitu zidaten postal bat



NEREA FERNANDEZ

Oso ondo portatzen da 1
Bainuontzira erroparekin bota 2
EuroDisney-ra joango nintzateke eta etxea jostailuz bete 3
Mediku lanetan 4
Heriotzari 5
Etxean giltzapetuko nuke 2 egunez 6
Betizu Taldeko Ainara Epelde 7
Izozkiak egiteko jolas bat 8

# Txiki inkesta

## Zer da zuretzat astronauta bat?

6 urte Alberto Hijano



Astrofisika ikasten duten ikasleak dira. Ilargira iristen direnean, bandera ipintzen dute.

7 urte Ibon Goikoetxea



Espazioa aztertzen duena.

8 urte Gorane Ayesta



Planeta desberdinetara joaten den gizakia, nolakoa den hor goiko bizimodua guri erakusteko.

9 urte Maialen



Niretzat astronauta bat, planetetara joan eta planetako gauzak ikertzen dituen pertsona da.

## Zer egingo zenuke 50 ko bilete bat lurrean topatuko bazenu?

Nerea Ainsa 6 urte



Aitari edo amari eman.

Nora Bastida 7 urte



Txerrian gordeko nuke.

Sara Beristain 8 urte



Nik euro bat gastatuko nuke eta beste guztia Kutxara sartu.

Aitor Murua 9 urte



Norbaiti erori bazaio eta ikusi badut berari emango nioke , eta bestela niretzat hartuko nuke.

# Paristik natorren artista bat naiz



**Beñat Arriola, Cristian Gala, Josetxu Garcia,**
**Imanol Cid eta Maria Galindo**
**L.H. 5. maila - Pilar Ikastetxea**

Ipuina: PARISKO BELARRI HANDIAK

Bazegoen behin denek zirikatzen zuten ume belarri handi bat. Alfontso zeukan izena. Alfontsok orkestra batean jotzen zuen. Bere instrumentu gogokoena biolina zen, baina berak tronpeta jotzen zuen.
Gehiegi zirikatzen zutenez, beste herri batera joatea pentsatu zuen. Han lagun asko egin zituen, bertakoek ere, belarri handiak baitzituzten.
Alfontso eta bere lagunak Parisera itzuli ziren. Lehengo lagun zaharrei deitu, eta hurrengo egunean parkean elkartzekotan geratu ziren.
Hurrengo egunean, parkean zeudela, Alfontsok eta lagun berriek belarri handiak, txikiak, edo azalaren kolore desberdina edukitzea berdin zela erakutsi zieten. Lagun zaharrek dena ulertu zuten, eta handik aurrera lagun minak izan ziren.

# lehiaketa lehiaketa lehiaketa lehiaketa

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?







Aurreko lehiaketako irabazlea: **Maite Viñé Usatorre**

**Erantzuna:** ..........................................................................................

..........................................................................................................

**Izen abizenak:** ..................................................................................

